Bayonne, le 25 juin 2013

HATZA association
18, rue du Pérou
64100 Bayonne

Aux directeurs de rédaction
Presse écrite / Radios / Télévisions

Objet : ***exposition photographique 2013***
dossier de presse (ci-dessous)

L'association HATZA organise pour la 5ème année consécutive une exposition photographique.

Elle aura lieu du 9 juillet au 9 août à la Librairie ELKAR à Bayonne.

Vous trouverez ci-joint un dossier de presse présentant l'association HATZA, le contenu de l'exposition et l'identité des photographes.

Nous vous serions reconnaissants de bien vouloir informer vos lecteurs, auditeurs ou téléspectateurs de l'organisation, de la nature, des dates et horaires de notre exposition.

Nous vous remercions pour votre collaboration.

Recevez nos meilleures salutations.

Pour l'association HATZA,

Jean-Claude Broca

Dossier de Presse

HATZA 2013 - Exposition photographique

du 9 juillet au 9 août 2013
Librairie Elkar – Bayonne

1/L'association HATZA



Pour la 5ème année consécutive l'association Hatza propose une exposition photographique.

L'association, composée de photographes, plasticien et chorégraphe, a toujours utilisé la photographie comme moyen d'expression depuis sa création en 1996.

HATZA : éditions 2009/2010/2011/2012

2009 - « Profession : reporter photographe - Ofizia : Berriketari argazkilari » : Angela MEJIAS, Gaizka IROZ, Bertrand LAPEGUE, Cedric PASQUINI, Daniel VELEZ

2010 – « L'œil en balade – Begien asetzeko » , autour du voyage : Christiane GESLIN, Maitena IHIDOPE, Xomin SOURGENS, Thomas DUBROCA, Nicolas FANTUZI

2011 - « Entre chien et loup » / « Iluntzean », ambiances oniriques : Florence DOUYROU, Sandrine AGOSTI-NAVARRI, Michel SUHUBIETTE , Alain ETCHEPARE

2012 - 4 photographes : Carole DESBOIS, Abel BOURGEOIS, Mariano LACAN, Jean-Claude BROCA



Lors de ces éditions, les photographies ont été exposées en divers lieux, traduisant la volonté d'HATZA d'élargir le rayonnement de son action de promotion de la photographie dans l'agglomération Bayonne – Anglet – Biarritz mais aussi dans le Pays Basque intérieur.

2/ HATZA 2013

Titre de l'exposition : **HATZA S' EXPOSE**

L'association exposera cinq de ses membres à la Librairie Elkar à Bayonne.

- Catherine DESTANDAU, « Ar(t)borescence » photographies sur bas-reliefs

Je ne me souviens plus vraiment de ma première photographie mais c'est s'en aucun doute ma passion pour l'art, l'influence d'un arrière grand-père lithographe puis ma rencontre avec le sculpteur Christiane Giraud qui m'ont conduit dans ces différents travaux à mélanger la photo et le bas-relief.

- Daniel VELEZ, « Euskal Herria »

Son apprentissage de la photo il le fait, auprès de son père, dans le magasin familial, à côté de l'église de Saint-Jean de Luz.
Il découvre l'univers de la photo de presse, à Paris avec le journal « l'Equipe ». Un Tour de France plus tard, il redescend sur la Côte Basque où il devient correspondant de « Sud-Ouest », journal dans lequel il est embauché en 1970 comme reporter photographe à l'agence de Bayonne-Pays Basque. Il prendra sa retraite 30 ans plus tard.

Ce métier ne s'abandonnant jamais tout à fait, il sera pendant plus de 10 ans correspondant de l'Agence France Presse sur le Pays Basque. La recherche permanente de l'image synthétisant à elle seule l'ensemble d'une situation fait de lui le témoin privilégié de son époque, ses photos sont la mémoire visuelle des événements politiques, sociaux, sportifs et culturels d'Euskal Herria

- **Thomas DUBROCA**, « Portraits Cubains »

J'ai commencé à faire des photos, il y a dix ans avec une idée fixe faire des photographies couleurs d'orages. Par chance, la Commune où je réside avait un club photo (Hiriburuko Ainhara section photo 64 990 Saint Pierre d'Irube). On m'a très vite informé que pour apprendre les bases de la photo il fallait commencer par le noir et blanc. Dix ans après, pas une photo d'orage et je n'ai jamais pu quitter le labo noir et blanc. A coup sûr l'effet Gérard Teillon qui, bien plus que les bases de la photographie m'a transmis sa passion du noir et blanc et de l'image. Je n'ai pas de domaine de prédilection, je suis ouvert à toute expérience et navigue entre photos de portraits, paysages et de natures mortes, …

Portraits Cubains : Parce qu' « un pays, c'est pour moi, un visage, un sourire, un accueil, un prénom, bien plus que des villes, des montagnes, des forêts ou des rivières » (Pierre Fillit)

- Michel SUHUBIETTE, « Les Festayres au Musée Bonnat »

Né à Bayonne, retraité de l'enseignement, Michel Suhubiette porte depuis longtemps un grand intérêt à la photographie, aux images bien sûr, quelles qu'en soient les formes et les tendances, mais aussi aux écrits (histoire, études, biographies…). Co-fondateur à Orthez de l'association *image/imatge*, il a été pendant plusieurs années responsable de la programmation des Rencontres photographiques d'Orthez et a contribué, au sein d'une équipe de passionnés, à l'évolution de l'action d'*image/imatge* devenu aujourd'hui Centre d'art de promotion et diffusion de l'image contemporaine.

Toujours très attaché à l'argentique, et particulièrement au noir et blanc, il aime pratiquer la photographie en artisan, de la prise de vue au laboratoire, jusqu'à la conception de présentation des images sous des formes diverses : cadres, coffrets, livrets …
Il ne s'interdit pas cependant de photographier en couleur, comme ici pour « Les Festayres au musée Bonnat ».

« C'était l'année 2000. Le Musée Bonnat, dans un souhait d'interactivité, incitait alors le public à réagir à la vision de telle ou telle œuvre exposée ; les contributions, graphiques ou littéraires étaient consignées dans des albums que l'on pouvait feuilleter librement. D'autre part, durant les Fêtes de Bayonne, en un clin d'œil empreint d'humour, le Musée habillait l'une de ses sculptures d'un foulard et d'une ceinture rouges.

Cela fut à l'origine d'un projet photographique associant des festayres, des tableaux du Musée Bonnat et des petits textes fictionnels. Ainsi, durant les six jours des fêtes de Bayonne 2000, des personnes connues ou inconnues, vinrent poser devant des œuvres de mon choix. »

- Jean-Claude BROCA, « Egun batez… »

Natif de la côte basque et y vivant toujours hormis quelques fugues professionnelles.

Vers quatorze ans je reçus en cadeau une petite boîte magique : une *camara obscura*.
Cette petite boîte allait m'ouvrir bien des portes des coulisses de la vie.
D'aucuns me disent autodidacte, mais qu'aurais-je appris sans la générosité de ceux qui m'ont initié à la photographie ?

« Egun batez… » : Euskal Herria Zuzenean (*le Pays Basque en direct*), un festival de terroir ouvert sur le monde.

Depuis sa création en 1996, l'association Piztu organisatrice de l'évènement n'a pas dérogé à ses valeurs fondamentales notamment la défense de la langue, de la culture et de l'identité basque, la défense des droits et la protection de l'environnement.
Les photographies présentées retracent les toutes premières années du festival sur les terres d'Arrosa. Par la suite, le festival se déplacera, toujours en milieu rural, vers Idauze-Mendi (*Idaux-Mendy*), puis Heleta (*Hélette*), et cette année Lekorne (*Mendionde*).

3/ ORGANISATION DE L'EXPOSITION 2013

Ouverture de l'exposition : du 9 juillet au 9 août, Librairie Elkar, place de L'Arsenal à Bayonne.

Vernissage : mardi 9 juillet à partir de 18h à la librairie Elkar.



Jours et heures d'ouverture :
lundi après midi de 14h à 19h
du mardi au samedi de 10h à 13h et de 14h à 19h.

<u>Contact presse</u> :

Jean-Claude BROCA - Téléphone : 06-68-93-84-74 / jcbroca64@gmail.com

Michel SUHUBIETTE - Téléphone : 05-59-25-64-91 / mi.suhubiette@wanadoo.fr

REMERCIEMENTS

L'association Hatza remercie les acteurs sans qui le déroulement de cette exposition n'aurait pas été possible : l'Institut Culturel Basque, la librairie Elkar, et les photographes.

Prentsa txostena

HATZA 2013 – Argazki erakusketa

uztailaren 9an agorrilaren 9era
Elkar liburu dendan. Baiona

1/ HATZA elkartea

Segidako bosgarren aldia da Hatza elkarteak argazki erakusketa bat antolatzen duela.

1996an sortu zenez geroztik, argazkilari, artista plastiko eta koreografoz osatu elkarteak adierazpide gisa beti erabili izan du argazkigintza.



HATZA: 2009/2010/2011/2012ko edizioak

2009 - « Ofizioa : Berriketari argazkilari » : Angela MEJIAS, Gaizka IROZ, Bertrand LAPEGUE, Cedric PASQUINI, Daniel VELEZ

2010 – « Begien asetzeko », bidaiaren inguruan: Christiane GESLIN, Maitena IHIDOPE, Xomin SOURGENS, Thomas DUBROCA, Nicolas FANTUZI

2011 - « Iluntzean », amets giroak: Florence DOUYROU, Sandrine AGOSTI-NAVARRI, Michel SUHUBIETTE, Alain ETCHEPARE

2012 - 4 argazkilari: Carole DESBOIS, Abel BOURGEOIS, Mariano LACAN, Jean-Claude BROCA



Edizio horietan, argazkiak leku desberdinetan erakutsiak izan dira. Hala, HATZA elkarteak erakutsi nahi izan du argazkigintza sustatzeko daraman ekintzaren ospea zabaltzeko asmoa duela, bai Baiona-Angelu-Biarritzeko hirigunean, bai eta barnealdean ere.

2/ HATZA 2013

Erakusketaren izenburua: **HATZAK BERE BURUA ERAKUSTEN DU**

Elkarteak bost kideren obrak erakutsiko ditu Baionako Elkar liburu dendan.

- Catherine DESTANDAU, « Ar(t)borescence », argazkiak behe-erliebetan

Ez naiz gehiago oroitzen nire lehen argazkiaz baina ez da dudarik artearekiko neukan zaletasunak, litografoa zen birraitona baten eraginak eta Christian Giraud zizelkariarekiko nire topaketak eraman nautenik argazkia eta behe-erliebea nahastera obra desberdin horietan.

- Daniel VELEZ, « Euskal Herria »

Aitarekin hasi zen argazkigintzan, familiaren saltegian, Donibane Lohizuneko elizaren ondoan.
Prentsa argazkigintzaren mundua Parisen ezagutu zuen, « l'Équipe » egunkarian. Frantziako Tour bat geroago, euskal itsasbazterrera itzuli zen « Sud-Ouest » egunkariko berriemaile gisa aritzeko. 1970ean, argazkilari-berriketari gisa hasi zen lanean Baiona-Euskal Herriko Sud-Ouest egunkariaren agentzian. Erretreta 30 urte geroago hartuko du.

Lanbide hori ez baita inoiz alde batera uzten, hamar urte baino gehiagoz Agence France Presse-ko berriemaile gisa aritu izan da Eukal Herrian. Egoera oso bat islatzen duen irudia etengabe bilatu baitu, bere garaiaren lekuko berezi bihurtu da eta bere argazkiak, Euskal Herriko politika, gizarte, kirol zein kultura gertaeren ikus-oroimena dira.

- **Thomas DUBROCA**, « Portraits Cubains » (Erretratu kubatarrak)

Duela hamar urte hasi nintzen argazkiak egiten, ideia finko batek gidaturik: ortzi koloreko argazkiak egitea. Zorionez, bizi naizen herriak argazki talde bat bazuen (Hiriburuko Ainhara, argazki saila, 64990 Hiriburu). Luzatu gabe azaldu zidaten argazkintzaren oinarriak ikasteko zuri-beltzezko argazkietatik hasi behar zela. Hamar urte geroago, ez dut ortzi koloreko argazki bat ere egin, eta ezin izan dut zuri-beltzezko laborategia utzi. Hori guzia, dudarik gabe, Gérard Teillon-en eraginari zor diot, argazkigintzaren oinarriak baino, zuri-beltzezko argazkien eta irudiaren zaletasuna transmititu baitzidan. Ez dut bat bestea baino maiteago, esperientzia guziak egiteko prest nago eta erretratu, paisaia eta natura hilen artean bidaiatzen dut.

Erretratu kubatarrak: « Herrialde bat, nire gustuko, hiriak, mendiak, oihanak edo ibaiak izatea baino aurpegi, irriño, harrera edo izen bat baita » (Pierre Fillit)

- Michel SUHUBIETTE, « Baionako Bestalariak Bonnat Museoan »

Baionan sorturik, egun irakasle erretretaduna, Michel Suhubiette-k argazkigintzarekiko (argazki motak eta joerak edozein izanik ere) eta idazkiekiko (historia, ikerketak, biografiak...) interes handia aspalditik erakutsi izan du. Orthez-eko *image/imatge* elkartearen sortzaileetarik bat izanik, hainbat urtez Orthez-eko Argazki Topaketen programazioaren arduraduna izan da. Argazkizale errabiatuen talde horren baitan, *image/imatge* elkartearen ekintzen garapenean parte hartu izan du, elkartea Irudi Garaikidearen Sustapen eta Hedapenaren aldeko Arte Zentro bihurtu arte.

Argazki analogikoari eta, batez ere, zuri-beltzezko argazkiari errotik atxikia, argazkintzan artisau gisa aritzea gustatzen zaio, argazki hartzetik laborategira, irudien aurkezpenari itxura desberdinak emanez: kuadroak, kutxatilak, eskuliburuak, eta abar.
Alta, gertatzen zaio ere koloretako argazkiak egitea, « Baionako Bestalariak Bonnat Museoan » erakusketa honetan bezala.

« 2000. urtean ginen. Bonnat Museoak, elkarrekintza bultzatzeko asmoz, bisitariak akuilatzen zituen erakutsia zen obraren bati ihardukitzera. Ekarpen grafiko edo literarioak, libroki hostaka zitezkeen liburuxka batzuetan bilduak ziren. Bestalde, Baionako bestetan, umorez bete begi keinu batez, Museoak bere eskulturetarik bat lepoko eta gerriko gorriez jantzi zuen.

Orduan sortu zen argazki proiektu bat, bestalariak, Bonnat Museoko margoak eta fikziozko testu txiki batzuk elkartzen zituena. Hala, Baionako bestek iraun zuten sei egunetan, pertsona anitz, ospetsu ala ezezagun, etorri ziren nik hautatu nituen obren aitzinean paratzera.»

- Jean-Claude BROCA, « Egun batez... »

Euskal itsasbazterrean sortua, bertan bizi da oraino, lanbide ihesaldi batzuk izan ezik.

Hamalau urte inguru nituela, kutxa magiko ttipi bat hartu nuen opari gisa: *camara obscura* bat.
Kutxa ttipi hark bizitzaren gibelaldeetako hainbat ate zabaldu zizkidan.

Batzuek diotenez, autodidakta naiz, baina argazkintza erakutsi zidatenen eskuzabaltasuna hartu ez banu, zer ikasiko nuen?

« Egun batez... » : Euskal Herria Zuzenean, lurralde festibal bat, munduari irekia.

1996an sortu zenez geroztik, festibalaren antolatzailea den Piztu elkarteak bere funtsezko baloreak artoski begiratu eta atxikitzen jakin izan du: euskara, euskal kultura eta nortasunaren alde etengabe borrokan egin du, ber denboran eskubideak defendatu eta ingurumena zainduz.

Aurkeztutako argazkiek Arrosan iragan ziren festibalaren lehen urteak erakusten dituzte. Geroago, festibala lekuz aldatu zen Idauze-Mendira, Heletara eta aurten Lekornera joateko.

3/ 2013ko ERAKUSKETAREN ANTOLAKETA

Erakusketaren zabaltzea: uztailaren 9tik agorrilaren 9era, Elkar liburu dendan, Baionako Arsenal plazan

Estreinatzea: uztailaren 9an, asteartea, 18 :00etatik goiti, Elkar liburu dendan.

Zabaltze egun eta orduak:
Astelehen arratsaldetan: 14 :00etatik 19 :00ak arte.
Asteartetik larunbatera: 10 :00etatik 13 :00ak arte eta 14 :00etatik 19 :00ak arte.



<u>Prentsarekiko harremanak</u>:

Jean-Claude BROCA - Telefonoa: 06-68-93-84-74 / jcbroca64@gmail.com

Michel SUHUBIETTE - Telefonoa: 05-59-25-64-91 / mi.suhubiette@wanadoo.fr

ESKERRAK

Hatza elkarteak erakusketa honen iragapena lagundu eta erraztu duten eragileak eskertzen ditu, haiek gabe proiektua ez baitzen egiten ahalko: Euskal Kultur Erakundea, Elkar liburu denda, eta argazkilariak.